- Laguardiako Erregeetako Andre Mariaren elizara eta Donibane elizara Laguardiako Udalak onartutako gida batekin egindako ikustaldia:

Helduen sarrera: 3 euro.

Sarrera murriztua: 20 pertsona baino gehiagoko taldea: 2,5 euro pertsonako.

Hamar urtetik beherakoek dohainik izango dute sarrera.

4. artikulua.- Ordaintzeko beharra.

1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoak Turismo bulegoak egindako bisitak egitean ordainduko dira.

2. Prezio publiko hori ikustaldia egiten den unean bertan ordainduko da eskudirutan. Diru horren truke zenbakidun sarrera emango da, zeinek zergatiaz gain, eguna eta zenbatekoa ere adieraziko dituen.

5. artikulua.- Kudeaketa.

Pertsona fisikoz eta juridikoz eratutako talderen batek bulego horrek eskainitako zerbitzuren bat jaso nahi badu, Udal Turismo Bulegoan eskatu behar izango du aldez aurretik. Gainerako ikustaldiek udalak zehaztutako ordutegia zaindu beharko dute.

AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Laguardia, 2007ko maiatzaren 21a.– Alkate-lehendakaria, JAVIER SAN PEDRO RÁNDEZ.

## LAGUARDIA

**4590**

**Udal hilerrian eskaintzen diren zerbitzuei buruzko tasen zerga ordenantza behin betiko onartzea.**

Ordenantza hori jendaurrean egon den bitartean alegaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Hona hemen ordenantza horren testua osorik:

### UDAL HILERRIAN ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUEI BURUZKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

1. artikulua.-

Laguardiako (Araba) udalak udal hilerrietan eskaintzen diren zerbitzuei buruzko tasak arautu eta eskatzen ditu, Arabako toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 3. ataleko 3. kapituluan ezarritako xedapen nagusiekin bat.

2. artikulua.-

Tasaren zergagai dira udal hilerrietan ematen diren zerbitzu hauek:

- Ehorztea eta lurpetik ateratzea.-
- Gorpuzkinak lekuz aldatzea eta murriztea.-
- Gorpuak gordetzea.-
- Hilerriak onik zaintzea, jagotea eta garbitzea.-
- Ehorzketa eskubideak ematea eta eskuz aldatzea.-
- Hilobietan lanak egiteko baimena ematea.

3. artikulua.-

Tasa zerbitzua ematen denean sortuko da.-

Zerbitzua ematen hasi direla ulertuko da, baldin eta:

1.- ondorengo zerbitzu hauek eskatzen badira: gorpuzkinak lurpetik ateratzea, lekuz aldatzea eta murriztea eta gorpuak gordetzea.

2.- Ehorzketa eskubideak eta lanetarako baimena ematen badira.-

3.- Hilerria onik zaintzeko, jagoteko eta garbitzeko zerbitzua ezartzen bada.-

4. artikulua.-

Honako hauek izango dira tasen subjektu pasiboak zergadun gisa: pertsona fisiko eta juridikoak, jaso gabeko jaraunspenak, ondasun-komunitateak eta izaera juridikorik gabeko gainerako erakundeak,

- Visita combinada con guía turístico acreditado/a por el Ayuntamiento de Laguardia, a las Iglesias de Santa María de los Reyes e Iglesia de San Juan:

Entrada adulto: 3 euros

Entrada reducida: (grupos de más de 20 personas) 2,5 euros por persona

Siendo gratuitas las visitas para los menores de 10 años

Artículo 4º.- Obligación al pago

1. La obligación de pago del precio público regulado en esta Ordenanza nace al efectuar las visitas guiadas que realiza la Oficina de Turismo.

2. El pago de dicho precio público se efectuará mediante pago en efectivo en el momento de la visita, acreditado mediante entrada numerada, en la que figurará el concepto, fecha y cuantía.

Artículo 5º.- Gestión

Las personas físicas o jurídicas interesadas en recibir la prestación de los servicios por grupo deberán concertar con antelación, en la Oficina Municipal de Turismo, la prestación de los mismos. Para el resto de visitas se debe respetar el horario fijado por el Ayuntamiento.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza fiscal entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa.

Laguardia, 21 de mayo de 2.007.– El Alcalde-Presidente, JAVIER SAN PEDRO RÁNDEZ.

## LAGUARDIA

**4590**

**Aprobación definitiva Ordenanza de Tasas por la Prestación de Servicios en el Cementerio Municipal.**

Transcurrido el plazo de exposición pública, sin que se hayan presentado reclamaciones, queda definitivamente aprobada la siguiente Ordenanza, cuyo texto integro se publica a continuación:

### ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS EN EL CEMENTERIO MUNICIPAL

Articulo1º.-

El Ayuntamiento de Laguardia (Alava), regula y exige las tasas por la prestación de servicios en los cementerios municipales, de acuerdo con las disposiciones generales establecidas en el capitulo 3º, sección 3ª de la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio, reguladora de las Haciendas Locales de Alava.-

Artículo º.-

Constituye el hecho imponible de la tasa la prestación de los siguientes servicios en los cementerios municipales:

- La inhumación y exhumación.-
- El traslado y reducción.-
- El deposito de cadáveres.-
- La conservación, vigilancia y limpieza de los cementerios.-
- La concesión y transmisión de derechos funerarios.-
- La autorización para efectuar obras en las sepulturas.

Artículo 3º.-

La tasa se devenga al prestarse el servicio.-

Se entiende iniciada la prestación del servicio:

1.- Al presentar la solicitud de prestación del servicio de: inhumación, traslado y reducción, deposito de cadáveres.

2.- Al otorgar la concesión de derechos funerarios y la licencia de obras.-

3.- Al estar establecido el servicio de conservación y limpieza de los cementerios.-

Artículo 4º.-

Son sujetos pasivos de la tasas en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas, las herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que carentes de personalidad jurídica,

zergapean egon daitekeen komunitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen badute, eta ondorengo kasuetan:

a)- Zerbitzuak ematea eskatzen badute edo emakidak edo lizentziak ematea eskatzen badute.

b)- Hilerriak onik zaindu, jagon eta garbitzeko zerbitzuak jasotzen badituzte, eta kaperen, kripten eta hilobien emakidadunak eta titularrak badira.-

5. artikulua.-

Uztailaren 5eko 11/1989ko Foru Arauaren 9. artikuluak jasotako eskumenak baliatuta, ondorengo salbuespenak ezartzen dira:

1.- Ongintzako erroldak edo gizarte laguntzakoak jasotako hildako pertsonak ehorzteko edo lurpetik ateratzeko zerbitzuak, pertsona horiek behartsu hil badira. Baita ongintzako establezimenduetan egon diren hildakoak ehorzteko eta lurpetik ateratzeko zerbitzuak ere.

2.- Agintari judizialek agindutako zerbitzuak.-

3.- Salbuespenezko arrazoiak oinarri, udalak berak ordaindu beharreko zerbitzuak.-

6. artikulua.- TASAK ordaintzea.-

1.- Hilerriak onik zaindu, jagon eta garbitzeko zerbitzua aldian-aldian ematen da eta errolda bat osatuz kudeatzen da. Zerbitzu hori urtero ordainduko da, errolda jendaurrean jartzeko aldian adierazitako eran eta epean.-

2.- Gorpuak ehorzteko, lurpetik ateratzeko, lekuz aldatzeko, murrizteko eta gordetzeko zerbitzuak ordainduko dira sinatutako kontratuak edo zerbitzuak ematea onartzeko ebazpenak adierazitako eran eta epean.

7. artikulua.- Zerga-kuota.-

Ordenantzaren eranskinak tarifak jasotzen ditu. Tarifei kopuru finkoak ezarri zaizkie, emandako zerbitzua zein den.-

8. artikulua.- Aplikazio orokorreko arauak.-

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak xedatutakoarekin bat, tasa hauei ondoko arau hauek aplikatuko zaizkie, hain zuzen ere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak kudeaketa, likidazio, ikuskapen, dirubilketa, arau-hauste eta zehapenei buruz jasotakoak.-

9. artikulua.- Azken xedapena.-

Ordenantza honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du ondorea, eta indarrean jarraituko du harik eta indargabetu edo aldatzen den arte.-

10. artikulua.- Xedapen indargabetzailea.-

Indargabetuta geratzen da udal hilerrian eskaintzen diren zerbitzuei buruzko tasak arautzen dituen lehengo zerga ordenantza.-

Laguardia, 2007ko maiatzaren 21a.– Alkate-lehendakaria, JAVIER SAN PEDRO RÁNDEZ.

**Eranskina**

I.- GORPUAK EHORZTEKO ZERBITZUA.-

* Panteoietan: 300 euro.

* Hilobietan edo horma-hilobietan: 300 euro.

II.- GORPUZKINAK LURPETIK ATERATZEKO ETA HILERRIKO BESTE LEKUREN BATERA ERAMATEKO ZERBITZUAK.-

* Kostua: 300 euro.

III.- LURRAK ALDI BATERAKO UZTEA (50 URTE), PANTEOIAK ERAIKITZEKO.-

• 90 euro metro koadroa.-

• Horma-hilobietarako uztea aldi batez (50 urte): 600 euro.

IV. HILERRIA ONIK ZAINDU, JAGON ETA GARBITZEKO ZERBITZUA.-

* Horma-hilobiak, lagun batentzako panteoiak: 30 euro.

* Bi lagunentzako panteoiak: 72 euro.

* Hiru lagunentzako edo gehiagorentzako panteoiak: 108 euro.

V.- LANAK EGITEKO ZERBITZUA ETA EMAKIDAK HOBETZEA.-

* Altxaerak aldatzea: 72 euro.

* Hilarriak aldatzea: 54 euro.

* Konponketa lanak: 150 euro.

constituyan una unidad económica o un patrimonio separado susceptibles de imposición:

a).- Que soliciten la prestación de los servicios o el otorgamiento de concesiones o licencias.

b).- Que se beneficien o esten afectados por los servicios de conservación, vigilancia, limpieza y decoro de los cementerios en su condición de concesionarios y titulares de capillas, criptas y sepulturas.-

Artículo 5º.-

En uso de las facultades recogidas en el artº 9 d ela Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio se establecen las siguientes exenciones:

1.- Los servicios de inhumación y exhumación de las personas incluidas en el Padrón beneficencia o de asistencia social de los fallecidos en estado de indigencia y de los asilados en establecimientos benéficos.-

2.- Los servicios ordenados por la Autoridad Judicial.-

3.- Los que por causas excepcionales deban ser costeados por el propio Ayuntamiento.-

Artículo 6º.- Pago de las TASAS.-

1.- La prestación del servicio de conservación, vigilancia y limpieza de las cementerios, por su carácter de servicio periódico que se gestiona con la formación de un Padrón, se abonará anualmente en la forma y en el plazo señalado en el trámite de exposición pública del Padrón.-

2.- La prestación de los servicios de inhumación, exhumación traslado y reducción y depósito de cadáveres, se abonará en la forma y en el plazo señalado en el contrato suscrito o resolución sobre su admisión.-

Artículo 7º.- Cuota Tributaria.-

En el Anexo a la Ordenanza, se establecen las Tarifas según cantidades fijas, en función de los diversos servicios que se prestan.-

Artículo 8º.- Normas de aplicación general.-

De conformidad con la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio, son de aplicación a esta tasas las normas sobre gestión, liquidación, inspección, recaudación, infracciones tributarias y sanciones reguladas en la Norma Foral General Tributaria.-

Artículo 9º.- Disposición Final.-

La presente Ordenanza surtirá efectos a partir del 1 de Enero de 2.004 y seguirá en vigor en tanto no se acuerde su derogación o modificación.-

Artículo 10º.- Disposición derogatoria.-

Queda derogada la anterior Ordenanza Reguladora de las Tasas por los Servicios Prestados en los Cementerios Municipales.-

Laguardia, 21 de mayo de 2.007.– El Alcalde-Presidente, JAVIER SAN PEDRO RÁNDEZ.

**Anexo**

I.- POR LA PRESTACIÓN DE INHUMACIÓN.-

* En panteones: 300 Euros.

* En fosa o Nicho: 300 Euros.

II.- POR LOS SERVICIOS EXHUMACIÓN Y TRASLADO DE RESTOS DENTRO DEL CEMENTERIO.-

* Coste: 300 Euros.

III.- POR CONCESIÓN TEMPORAL DE TERRENOS PARA CONSTRUCCIÓN DE PANTEONES (50 AÑOS).-

• 90 Euros el metro cuadrado.-

• Por Concesión Temporal sobre nichos (50 años): 600 Euros.

IV. POR LA CONSERVACIÓN, VIGILANCIA Y LIMPIEZA DEL CEMENTERIO.-

* Nichos, panteones sencillos: 30 Euros.

* Panteones dobles: 72 Euros.

* Panteones triples o mayores: 108 Euros.

V.- POR LA REALIZACIÓN DE OBRAS Y MEJORA EN LAS CONCESIONES.-

* Sustitución de alzados: 72 Euros.

* Sustitución de lápidas: 54 Euros.

* Obras de reforma: 150 Euros.

## LAUDIO

**4677**

**Laudioko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikusketa Aurrerapenaren jende aurreko erakusketa aldia eta epea luzatzea.**

Jakinarazten da, herritar guztiek jakin dezaten, Laudioko Hiri Antolaketako Plan Orokorra. –HAPO- Berrikustearen Aurrerapen Dokumentuari buruzko iradokizunak eta alternatibak aurkezteko eta jende aurreko erakusketa aldia eta epea luzatu egin dela 07-09-30 egunera arte.

Aipatu den Aurrerapen hori jende aurreko informazio aldian eta epean, eskura egongo da Hirigintza eta Ingurumena Bulegoan (Herriko Plaza, z/g 3. solairua) interesa dutenek aztertu eta planeamenduarekiko iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Jende aurreko erakusketa aldia eta hiritarren eta erakundeen parte hartzearen emaitza aztertuta, Udalak erabakiko ditu Plan Orokorra idazteko orduan oinarritzat hartuko diren irizpideak eta helburuak.

Laudio, 2007ko ekainaren 22a.– Alkateak, JON KARLA MENOYO LLANO.

### LAUDIOKO UDAL-PLANGINTZAKO AHOLKU-BATZORDEAREN ERREGENDUA

ZIOEN AZALPENA

Toki Araubidearen Oinarrietako Legeko 69. artikuluarekin bat, Tokian Tokiko Udalbatzarrei dagokie euren jardunari buruzko ahalik eta informaziorik zabalena herritarren eskura jartzea eta, baita herriko bizitzan partaidetza erraztea ere, partaidetza politikorako eskubidearen adierazpena baita hori, sistema demokratikoan herritarrek politikan parte hartzeko duten oinarrizko- eta konstituzio-eskubidearen (EK, 23. art.) adierazpen legez baloratu ahal dena.

Hirigintzako gaietan Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, bere 108., 109. eta 110. artikuluetan, informazio eta partaidetza eskubidearen beste ohiko tresna batzuk garatuz, exijitzen du Plan Orokorretako egiturazko ordenazioa edo antolamendua lantzerakoan eta aldaketak prestatzerakoan herritarren partaidetza espezifiko baten aurreikuspena egitea eta behartu egiten du, beste aldetik, euren plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena duten udaletan Udal-Plangintzako Aholku-Batzorde bat era egokian sortu eta arautzeko.

Herritarren eta euren elkarteen eta beste erakunde batzuen arteko partaidetzako eta kontzertazio sozialeko oinarrizko helburuokin, Erregelamenduko arauok bilatu nahi dute Laudio udalerrirako, bere erdigune eta auzo guztietan, nahi dugun sendotzeari eta bilakaerari buruz hartuko diren udal erabakietan bete betean asmatzea, erabaki horien edukia hobetzea, hirigintza prozeduran eta hirigintza plangintzak suposatzen duen herrien ordenazio eta antolamendu osoarekin.

Prestatu den Udal-Erregelamenduak, bere xedapen zehatzak arautzeko orduan, zentratu da bilatzen desiragarria den eragile ezberdinen arteko kontzertazioa, hitzarmena eta adostasuna, koordinazioa, eta, batez ere, eragile horiek parte hartze funtzional zuzena izatea hirigintzaren antolamendua eta ordenazioari buruzko udalaren bihar-etziko erabakien orientabidean. Horretarako aurreikusi da gaitasunean, ordezkagarritasunean edo pertsona edo kolektibo zehatz eta jakin batzuei egindako deialdi berezi batean oinarritutako osaera, Legeak erregulatutako ordezkapen organoei dagozkien erabaki-ahalmenen kalte barik, horiek hartuko dituzten ebazpenak eta planek izango duten edukia udalerrian eta eskualdean gaur egungo bizibaldintzak hobetzeko zuzenenak eta egokienak izateko eta herriaren aurrerabide jasangarria errealitate iraunkorra egiteko.

Helburu horiek lortzeko, Erregelamendu honek proposatzen du arautzea Udal-Plangintzako Aholku-Batzordearen sorrera eta funtzionamendua aholku organo legez, kide-anitzez osatuta, gizarte eragileen partaidetza indartzea ahalbideratuko duena, bereziki estrategiazko hiri-plangintzan eta Laudio udalerriaren garapen iraunkorraren artikuluazioan eta sustapenean.

## LLODIO

**4677**

**Ampliación de plazo de exposición al público del Avance de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Laudio/Llodio.**

Se pone en general conocimiento que el periodo de exposición al público y de presentación de sugerencias y alternativas sobre el Documento del Avance de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana -PGOU- de Laudio/Llodio ha sido ampliado hasta el 30-09-07.

Durante este periodo el expediente relativo a dicho Avance se encontrará de manifiesto en el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente (Herriko Plaza, s/n - 3º), a efectos de que quienes se consideren interesados puedan examinarlo y presentar sugerencias y alternativas de planeamiento.

A la vista del resultado de la exposición y participación pública e institucional, se adoptarán por el Ayuntamiento los criterios y objetivos que servirán de base para redactar el Plan General.

Llodio, 22 de junio de 2007.– El Alcalde, JON KARLA MENOYO LLANO.

### REGLAMENTO REGULADOR DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE LAUDIO/LLODIO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Conforme a la Ley de Bases de Régimen Local, art. 69, corresponde a las Corporaciones Locales facilitar la más amplia información sobre su actividad y, también, favorecer la participación de los ciudadanos en la vida local, lo cual puede valorarse como una manifestación más del derecho fundamental y constitucional (art. 23 C.E.) de participación política de los ciudadanos en el sistema democrático.

En materia urbanística la reciente Ley 2/2006, del Suelo y Urbanismo del País Vasco, en sus arts. 108, 109 y 110, en desarrollo de otros tradicionales instrumentos del derecho a la información y a la participación, exige la previsión de un programa específico de participación ciudadana en la elaboración y alteraciones de la ordenación estructural del Plan General y obliga, por otra parte, a crear y regular adecuadamente un Consejo Asesor del Planeamiento Municipal en los municipios cuyos ayuntamientos tengan la competencia para la aprobación definitiva de sus planes generales.

Con estas finalidades básicas de participación y concertación social de los ciudadanos y de sus asociaciones y otras organizaciones, la regulación dispuesta en este Reglamento busca la mejora en el contenido y acierto de las decisiones municipales sobre la consolidación y evolución deseable del municipio de Laudio/Llodio, en todos sus núcleos y barrios, en relación con el proceso de urbanización y con la ordenación integral de las ciudades que el planeamiento urbanístico supone.

El Reglamento Local preparado, en la regulación de sus concretas disposiciones, se ha centrado en la búsqueda de una deseable concertación de agentes diferentes, de coordinación y, sobre todo, de participación funcional directa en la orientación de futuras decisiones municipales sobre su ordenación urbanística. Para ello se ha previsto una composición basada en la competencia o representación, o en un especial llamamiento a colectivos o personas determinadas, para que, sin merma de las facultades de decisión que corresponden a los órganos representativos regulados por la Ley, las resoluciones que éstos adopten y el contenido de los propios planes sean más acertados y adecuados para mejora de las actuales condiciones de vida en el Municipio y su comarca y hagan una realidad constante el progreso local sostenible.

Para lograr estos objetivos, el presente Reglamento propone regular la creación y funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal como un órgano consultivo y colegiado que permita reforzar la participación social especialmente en la planificación urbanística estratégica y en la articulación e impulso del desarrollo sostenible en el municipio de Laudio/Llodio.